

ARTEA ETA EKONOMIA

ARTISTA PRODUKTOREA

Krisia denon ahotan dabilen hitza izanik ere, ezer gutxi aditzen da artistaren egoera prekario eta ekoizpen baldintza eskasez –garai txarretan hobera egiten ez duen gaitz kronikoa berau–. Artea hiri guztietako kultur agendan agertzen bada ere, zein da artistak harreman sozialen esparruan betetzen duen lekua?

Olaita MIRANDA

Walter Benjamin, materialismo historikoaren ikuspuntutik 1934ean argitaratutako “El autor como productor” testuan, intelektual edota sortzaileek ekoizpen prozesuan behar luketen jarrera politikoaz mintzo zen. Orduz geroztik, atentzio urria eskaini zaio arte ekoizpenaren izaera politikoari, baita sormenak berekin dakarren ekoizpen immaterialaren balioari ere. Baina utopia sozialak abaildu, eta oro har, garaiak asko aldatu badira ere, kontuan hartzeko modukoa bada irudi ekoizpenak eta sorkuntza intelektualak sorturiko plusbalio ekonomiko eta sinbolikoa, eta zer esanik ez ekoizpen immateriala aberastasun iturri nagusi bihurtu den zerbitzu eta finantzetan oinarritutako egungo ekonomian.

Hirien arteko konpetentzia global eskizofrenikoan, geure hiriak arte egitura handiz, eta kultur agendak gertakizun eta erakusketa ikusgarritz, erruz, eta makillaje, bete nahi izanaren aurrean, in-

duratzen bada ere, arte ekoizpenaren baldintza materialetik aparte, arrotz mantentze hori salatuz, Cabello/Carceller artistek praktika artistikoaren egoera prekarioa mahai gainean jartzea helburu duen arte proiektuen deialdia zabaldu dute “Presupuesto: 6 euros. Prácticas artísticas y precariedad” izenburupean. Garaien, eta artearen egiteko modu eta hartzearen bilakaeraren parean inondik inora ez den artearen eta artisten ekoizpen baldintzen prekariotasun kronikoa salatuz, 6 euroko aurrekontuaz ekoiztutako artelanak Off Limits espazioan erakusteko deialdia ireki dute. Artisten hitzetan, egungo krisi ekonomikoarekin oso ongi doan aurrekontu-krisi larriaren adierazgarri litzatekeen “genero” berri bat izango da erakusgai, “arte povera”ren bestelako zentzu baten, literalago baten, adierazgarri litzatekeen joera, hain zuzen.

(Berria ez den) etengabeko prekariotasun eta krisialdi honen aurrean, bestelako ekimen interesgarri bat proposatzen digu Miren Gonzalez Goikoetxea artistak. Trukaketaren inguruko hurbilketa eta sakontze baten ondoren, trukerako bulego bat jarri du abian martxoaren 20a bitarte Tolosako GKO Gallery-n duen “Fiordoan Trukean” erakusketan. Ohiko

«ARTISTA GARAIKIDEEN BEHAR ETA

ERREALITATEEKIKO HURBILAGOAK ETA MALGUAGOAK

LIRATEKEEN LAN ETA LAGUNTZA EGITURAK ERAIKETZEA

GARRANTZITSUA DA» (CABELLO/CARCELLER)

dustria kulturalen ekoizpen zurrunbilan nahiz egungo testuinguru sozialean artista non aurkitzen den galdegiten duten ahots kritikoez ere badakarte beren oihartzuna. Hala nola artea eta sormenarekin lotutako lan eta ekoizpen baldintza desegituratua, ordain-sari eskaseko lan ordu luzeak, artea benetako ogibidetzat baino denbora-pasa huts gisa hartzea, lan eta aisialdi-orduen arteko bereizketa eza, (auto)esplotazioa, muturrera eramanteko malgutasun eta mobilizazioa, larrugorritan diren geure bizipen nahiz afektuak eta abar luze bat jarri izan du mahai gainean –norbera erraz aski identifikatua sentitzeko erantzia Maria Ruido ikus-entzunezko arloko artistak (ikus “Mamá, ¡quiero ser artista!”, 2003).

Bestetik, arte instituzio tradizionala kudeaketa kulturalera eta ondasunaren erosketaz eta kontserbazioaz nolabait ar-

galeria merkatutik kanpo, bertan koadroak eta marrazkiak beste “zerbaiten” truke eskaintzen dira, bertara hurbildutakoa norberak eskain dezakeen “beste zerbait” horretan pentsatzera bultzatuz. Gure behar eta nahiak merkatu kapitalistatik kanpo asetzeko sistema funtzionala izateaz gain, arte sorkuntza eta haren balio sinbolikoa beste edozein ogibide, zerbitzu, trebetasun edota ondasun legez (iturgintza, zaintza, musika, bigarren eskuko autoa) baloratzen duen proposamen aberasgarria da.

Trukea denok noiz edo noiz erabili izan dugun sistema sozioekonomiko zaharra da. Gonzalez Goikoetxeak eginiko aurreikerketan, Argentinan 90eko hamarkadako krisialdiaren ondorioz sortutako truke klub aski entzunez gain, beste zenbait aurrekari interesgarri ere aipatzen ditu: krisi garaian Vancouver-eko Gobernuak 1983an martxan jarritako



Walter Benjaminen “El autor como productor” liburuaren azaleko detaile bat.

“denbora bankua”, edota gero Margaret Thatcher-en agintaldi neoliberean Erresuma Batuan funtzionamenduan ziren truke komunitateak erregulatu eta kontrolatzeko sorturiko LETS delakoak (Local Exchange and Trading Systems); Kapitalaren zainetan zehar igeri egiten ez duten transakzio sozioekonomiko oro erregulatu eta kontrolpean izateko behararen adierazgarria. Izan ere, ekoizpen harremanak garrantzi handiko indarrak baitira, besterik gabe, edonoren esku uzteko. Hori al da artearen/artistaren ekoizpen baldintza hutsalen arrazoia?

Era berean, truke materialaz gain, ideia trukeaz ere mintza gintezke. Matthieu Laurette artistak Consonni arte produktorekin batera ekoiztutako “El Gran Trueque” (2000), Canal Bizkaiak igorritako telebista programan, trukea kapitalaren irabaziaren logika kolokan jartzeko ideia gisa erabili zen. Kasu honetan, or-

dea, truke “material” bat egitea baino truke “idea” bera bihurtzen da (telebista programa baten gertaeran gorpuztua) ekoizpen artistiko. Ekoizpen materialari erreparatzeaz gain, sorkuntza immateriala bera, harrapaezina dela iruditzen arren, merkantzia baliotsua da Kapital Globalaren atzaparretan. Eta sorkuntzaren ekoizpen immaterial hori da, hain zuzen, Consonni arte produktorek ekoizpenaren teoria zein praxian era kritiko eta politiko batean aztertu beharreko auzi gisa aldarrikatzen duena.

Azken batean, aldizka bada ere, behin eta berri datorkigun oihartzuna da hau, arte garaikidearen errealitatera hurbilagoak liriatekeen ekoizpen moduak bideratzeko, ezinbestez, gizarte, arte instituzio eta arte praxiaren arteko harremanak birpentsatu beharrean gaudela. Baita ekoizle den heinean artistaren beraren papera ere.